

Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN AnD.

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2025eko urtarrilaren 28an izan zuen ohiko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, gehiengoz:

“Erakunde Adierazpen bateratua, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, Israelen UNRWAre aurka onartutako lege berriekiko kezka eta haserrearen inguruan.

UNRWAk hamarkadak daramatza errefuxiatu palestinarrei funtsezko zerbitzu humanitarioak ematen, bai Palestinako lurralde okupatuan, bai Zisjordanian eta Gazako zerrendan. Zerbitzu horien artean daude osasun-zentroak, eskolak eta lanbide-prestakuntza.

Urriaren 28an, Israelgo Gobernuak bi lege onartu zituen UNRWAre aurka, agentziak Palestinako lurralde okupatuan lan egiteko debekua barne.

Amorregarria da, baina, batez ere, oso arriskutsua. Lege horiek onartzea Israelen kanpaina sistematiko baten barruan dago, hain zuzen ere UNRWA gaitzesteko eta Palestinako errefuxiatuekin batera egindako lana deslegitimatze. Erabaki horren ondorioak oso larriak izan daitezke populazio palestinarrentzat, Israelentzat eta eskualde osoarentzat.

Ikuspegi juridikotik, Israelgo Gobernuaren legediak –kontuan hartuta Israel NBEko estatu kidea dela– NBEren Batzar Nagusiaren mandatua duen erakunde baten aurkakoa izateak orain arte ikusi gabeko egoera bat da. Gainera, arriskutsua da, eta Nazio Batuen Gutunaren aurkakoa erabat. Israelen nazioarteko zuzenbidearekiko dituen betebeharrak urratzen ditu.

Lege horiek onartzeak aurre egiten dio nazioarteko erkidegoaren borondateari, hain zuzen ere Nazio Batuen Batzar Nagusiak UNRWari buruz emandako 302 ebazpenaren bidez adierazitakoa. Nazioarteko

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de enero de 2025, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración Institucional conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, sobre la preocupación e indignación por las nuevas leyes aprobadas por Israel contra UNRWA

Durante décadas, UNRWA ha prestado servicios humanitarios esenciales a los refugiados palestinos en el territorio palestino ocupado, incluida Cisjordania y la Franja de Gaza. Entre ellos se incluyen centros de salud, escuelas y formación profesional.

El pasado 28 de octubre, el Gobierno de Israel aprobó dos leyes contra UNRWA incluida la prohibición de que la Agencia trabaje en el territorio Palestino ocupado.

Es indignante, pero sobre todo es extremadamente peligroso. La aprobación de estas leyes forma parte de una campaña sistemática israelí para desacreditar a UNRWA y deslegitimar el trabajo junto a los refugiados y refugiadas de Palestina. Las consecuencias para la población palestina, para Israel y para la región pueden ser extremadamente graves.

Desde el punto de vista jurídico, la legislación del Gobierno de Israel -como estado miembro de la ONU- contra una entidad con mandato de la Asamblea General de la ONU no tiene precedentes. Además, es peligroso y diametralmente opuesto a la Carta de Naciones Unidas. Israel viola sus obligaciones con el derecho internacional.

La aprobación de estas leyes desafía la voluntad de la Comunidad Internacional expresada mediante la resolución 302 de la Asamblea General sobre UNRWA y profundiza en las violaciones reconocidas por la Corte



Justizia Gorteak aitortutako urraketak modu sakonagoan jorratzen ditu ebazpen horrek.

Lege-proiektu horiek areagotu eta sakondu egiten dute biztanleria palestinarraren sufrimendua, batez ere Gazan; izan ere, urtebete baino gehiago daramate erabateko infernu batean bizitzen, eta lege-proiektu horiek zigor kolektibo bat dira.

Maila politikoan, Israelgo Parlamentuak UNRWArek aurka onetsitako legeria entitate hori desegiteko kanpaina zabalago baten parte da. Palestinarrei errefuxiatu izaera kendu nahi diete, eta etorkizunean konponbide politiko bat aurkitzeko parametroak aldatu nahi dituzte, modu aldebakarrean.

Gainera, eraso horiek ez dira UNRWArek aurkakoak bakarrik, nazioarteko zuzenbidea betetzea eta konponbide baketsu bat lortzea eskatzen duen edozein pertsona edo erakunderen aurkakoak ere badira. Aurrekari larri bat jartzen dute munduko beste gatazka-egoera batzuetarako, gobernuek agian Nazio Batuen Erakundearen presentzia deserosoa ezabatu nahiko baitute.

Giza esparruak eta eremu humanitarioak kezkatzen gaitu batez ere. Gazako biztanleak gosez hiltzen ari dira, eta Israelen bonbardaketen pean bizi dira. Bitartean, israeldar armadaren eta kolonoen indarkeriapean bizirauten saiatzen ari dira Zisjordaniako biztanleak. Eta UNRWA da biztanle horien guztien salbamendua.

Israelek lege horiek ezartzen baditu, urratu egiten ditu Nazio Batuen Gutuna (2(5). eta 105. artikulua (barne); Nazio Batuen Erakundearen Pribilegio eta Immunitatei buruzko 1946ko Hitzarmena; Comay-Michelmores Gutuna; eta potentzia okupatzaileak nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arloan dituen betebeharrak. Badirudi lege horiek Gazako genozidioaren prebentzioari buruz Nazioarteko Justizia Gorteak emandako behin-behineko ebazpenak ere urratzen dituztela, eta NJGaren uztailaren 19ko aholku-irizpenean okupazioaren legekontrakotasunari buruz zerrendatutako urraketak ere gehiago sakontzen dituztela. Urraketa horiek Nazio Batuen Batzar Nagusiaren mandatuaren aurkakoak dira (302. ebazpena (IV), 1949).

Sistema aldeaniztunaren aurkako pauso bat da, Nazio Batuen Erakundea ahultzen du, eta UNRWari ospea kentzeko eta entitate horrek errefuxiatu palestinarrei

Internacional de Justicia.

Estos proyectos de ley aumentan y profundizan el sufrimiento de la población palestina, especialmente en Gaza, donde están pasando desde hace más de un año un absoluto infierno, y son un castigo colectivo.

En el plano político, la legislación del parlamento israelí contra UNRWA forma parte de una campaña más amplia para dismantelar la Organización. Pretenden despojar a los palestinos de su condición de refugiados y cambiar – unilateralmente– los parámetros para una futura solución política.

Además, estos ataques no se dirigen sólo contra UNRWA, sino contra cualquier persona o entidad que exija el cumplimiento del derecho internacional y una solución política pacífica. Sientan un grave precedente para otras situaciones de conflicto en el mundo en las que los gobiernos tal vez deseen eliminar una presencia incómoda de las Naciones Unidas.

El ámbito humano y humanitario es el que nos preocupa por encima de todo. La población de Gaza se muere de hambre y bajo bombardeos israelíes. Mientras tanto, en Cisjordania intentan sobrevivir bajo la violencia del ejército y los colonos israelíes. Y UNRWA es su salvavidas.

Si Israel implementa estas leyes viola la Carta de las Naciones Unidas (incluidos los artículos 2(5) y 105); la Convención de 1946 sobre Privilegios e Inmunidades de las Naciones Unidas; las Cartas Comay-Michelmores; y las obligaciones de la Potencia ocupante en materia de Derecho Internacional Humanitario. También parecen violar las resoluciones provisionales de la Corte Internacional de Justicia sobre la prevención del genocidio en Gaza y profundiza en las violaciones enumeradas en la Opinión Consultiva de la CIJ del 19 de julio sobre la ilegalidad de la ocupación. Son contrarias al mandato de la Asamblea General del OOPS (Res. 302 (IV), 1949).

Se trata de un paso en contra del sistema multilateral, debilita a las Naciones Unidas y es el último de una campaña sistemática y en curso para desacreditar a



laguntza eta giza garapenerako zerbitzuak emateko duen helburua deslegitimatzeko abian dagoen kanpaina sistematiko baten azken pausoa da.

UNRWA y deslegitimar su papel en la prestación de asistencia y servicios de desarrollo humano a los refugiados palestinos.

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- Donostiako Udalak azpimarratzen du estatu kide guztiek errespetatu behar dituztela Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak, eta premia eskatzen dio Israelgo Gobernuari baimena eman diezaiola UNRWari Gazan eta Zisjordania okupatuan (Jerusalen Ekialdea barne) egiten duen ezinbesteko lanarekin jarraitzeko, Nazio Batuen Batzar Nagusiak agintzen duen bezala.

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián subraya, que las resoluciones de las Naciones Unidas deben ser respetadas por todos los Estados Miembros e insta urgentemente al Gobierno de Israel a que permita a UNRWA continuar su labor indispensable en Gaza y la Cisjordania ocupada, incluida Jerusalén Este, como lo ordenó la Asamblea General.

2.- Donostiako Udalak Israelgo Estatuari beste behin eskatzen dio nazioarteko legeria errespetatu dezala, armak utz ditzala eta bide diplomatikora itzul dadila.

2.- El Ayuntamiento de San Sebastián insta una vez más al Estado israelí a respetar la legislación internacional, a dejar las armas y a volver a la vía diplomática.

3.- Donostiako Udalak berriz adierazten du UNRWaren alde dagoela eta hark egiten duen lana babesten duela.

3.- El Ayuntamiento de San Sebastián reitera su apoyo a UNRWA y a la labor que realiza.

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**